



*Euskaltzaleak aktibatuz hizkuntza ohiturak aldatu*

## LABURPEN TXOSTENA

Euskalgintzako eragileentzat,  
**Euskaraldia: 11 egun euskaraz**  
ekimenaren aurkezpena

2017ko azaroan aurkeztua eta  
2018ko otsailean eguneratua



## SARRERA

Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea da *Euskarak 365 egun* dinamikaren helburua. Epe luzeko lan ildo da, eta, helburua betetzeko bidean, urrats esanguratsuak emateko mugarriak izango ditu.

*Euskarak 365 egun* dinamikaren baitan, euskaraz bizitzeko norbanakoen urratsak eta mota guztietako entitateen babes neurriak bultzatu nahi ditugu. Horregatik, bi plano horietan egin nahi dugu lan. Hona hemen, labur, datozen bi urteetarako lehen mugarriak:

### 1.- 2018an, Euskaraldia: **11 egun euskaraz**. Pertsonen urratsak helburu.

**Euskaltzaleak aktibatu nahi ditugu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimena gauzatu nahi dugu Euskal Herri osoan.

### 2.- 2019an, mota guztietako entitateen babes neurriak helburu.

Hizkuntzaren normalizazioaren ardura partekatua da: pertsonena eta entitateena. Horregatik, behin herritarrak aktibatzen hasita, **entitateek babes neurriak hartu eta baldintza oztopatzaileak ken ditzatela sustatu nahi dugu**. Babes neurriak har ditzaketen entitateak mota askotakoak dira: enpresak, erakunde publikoak, kultur eta kirol taldeak, elkarte gastronomikoak, merkatarikaririk gabeko elkarteak eta abar. Herritarrak biltzen dituzten unitate posible guztiak, publikoak zein pribatuak. 2019rako ekimena 2018ko lehen seihilekoan landuko dugu. Hala ere, 2018an hasi nahi dugu babes neurri berriok probokatzen.

Ondorengoak dira *Euskarak 365 egun* dinamikaren helburu nagusiak.

- Hizkuntza ohiturei astindu bat ematea eta ahalik eta pertsona gehienek **euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea**.
- Tokian tokiko **euskalgintza aktibatzea**, praktika linguistikoak erraztuko dituzten neurriak sustatu eta herritar euskaldunak martxan jar ditzaten.
- Era guztietako **entitateek** euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten **babes neurriak hartzea** eta oztopo diren egoerak arintzea eta bideratzea.
- Ekimenetik abiatuta emango diren **urrats berriak** eta sortuko diren euskarazko harremanak **ekimenaren ostean mantentzea**.

2018ko mugarrria izango den **Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimenari buruzko azalpenetan sartu aurretik, dinamika honen bokazioari buruzko zenbait ideia azpimarratu nahiko genituzke:

- **Osagarritasuna:** *Euskarak 365 egun* dinamikak euskararen erabilera sustatzeko abian dauden horrenbeste ekimen eta programen osagarri izateko bokazioa dauka. Euskararen erabilera programetan txertagarria eta horiekin uztargarria izan daiteke, eta hala egiteko gonbidapena luzatzen dugu.
- **Malgutasuna:** *Euskarak 365 egun* dinamika herri edo eremu bakoitzeko egoera soziolinguistikoaren eta lehentasunen arabera moldatu behar da.
- **Abiatzea:** Proposamena egin nahi diegu herriko euskalgintzako eragileei elkarrekin harremanetan jar daitezen ekimena elkarlanean diseinatu eta garatzeko; izan euskalgintza soziala zein instituzionala.
- **Marko komuna:** *Euskarak 365 egun* dinamikak malgua izan behar du herrien errealitateetara egokitu eta funtzionatuko badu. Hala ere, marko komuna behar du herritarrentzako nahasgarria izan ez dadin. Herrietan oinarrizko ezaugarriak mantentzea komeni da: helburuak, izena eta irudia, *ahobizi* eta *belarriprest* figurak izatea eta gauzapen garaia.

## DEFINIZIOAK

Dokumentu honetan jasotako proposamena barneratzen laguntzeko, sarritan agertuko diren zenbait hitzi ematen diegun definizioa bildu dugu:

- **Ahobizi:** euskara ulertzen duten guztiei euskaraz egiten dien pertsona da *ahobizi*, baita kideek erdaraz egin arren ere. Era berean, ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten die.
- **Belarriprest:** dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbitea egingo dion pertsona da, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren.
- **Ekimena:** 2018an gauzatuko den **Euskaraldia: 11 egun euskaraz** egitasmoari buruz aritzeko baliatu dugun hitza.
- **Dinamika:** *Euskarak 365 egun* epe luzeko lan ildo definitzeko baliatu dugun hitza, zenbait ekimen izango dituena.
- **Aktibista:** euskararen erabilera areagotzeko borondatez lanean ari den pertsona.
- **Aktibazio:** euskararen erabilera areagotzeko, herritarren inplikazioa bilatzen duen ekimen mota.

- **Sustatzaile:** tokian tokiko ekimenak zein ekimen orokorra babestu, zabaldu eta antolatuko dituzten eragileak, instituzionalak zein sozialak.
- **Erakunde:** administrazio publikoko entitatea.
- **Entitate:** euskararen erabilera sustatu eta errazteko neurriak har ditzaketen mota askotako eragileak, hala nola enpresak, erakunde publikoak, ikastetxeak, kultur eta kirol taldeak, elkarte gastronomikoak, merkatarikari elkarteak eta abar.
- **Euskalgintza soziala:** beren egunerokoan euskararen alde jarduten duten arlo sozialeko entitateak; hala nola, euskaltzaleen elkarteak, euskararen aldeko taldeak, euskaltegiak, ikastolak, guraso elkarteak, euskararen sustapenarekin lotutako kultur elkarteak eta bestelakoak.

## PROPOSAMENA

### **ZER DA Euskaraldia: 11 egun euskaraz?**

Euskaltzaleak aktibatu nahi ditugu beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten. **2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimena gauzatuko dugu Euskal Herri osoan.

Hamaika egun horietan, **16 urtetik gorako herritarrak ahobizi eta belarriprest** bihurtu nahi ditugu, beren eguneroko harremanetan euskaraz aritu daitezen ulertzen duten herritar guztiekin.

1. **Ahobizi** denak euskaraz egingo die *belarriprest* direnei eta euskara ulertzeko gai diren guztiei, horiek erdaraz erantzun arren. Era berean, ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo die. Identifikatzeko txapa izango du.
2. **Belarriprest** denak, dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbitea egingo dio, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren. Identifikaziorako txapa izango du, *ahobiziek belarriprest* dela jakin dezaten.

Parte hartzeko izen-ematea zabalduko da, eta ekimenak dirauen bitartean identifikaziorako txapa baliatuko dute guztiek.

Ekimena Euskal Herri osoan egingo den arren, tokian tokiko euskaltzaleak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak, eta inguru soziolinguistiko bakoitzaren errealitatera moldatzeko modukoa izango da. Urratsak eman litezke: auzo, herri zein eskualde gisa. Elkarte, komunitate, enpresa zein talde gisa. Beren eragite eremua tokikoa zein Euskal Herri mailakoa izan daiteke. Era berean, Euskal Herritik kanpoko euskal hiztunen komunitateetan ekimena gauzatu nahi izanez gero, parte hartzeko atea zabalik daude.

**Euskaraldia: 11 egun euskaraz** bi planotan garatuko da: alde batetik tokian tokikoan, pertsonak eta entitateak aktibatuz, eta bestetik Euskal Herri mailakoan, pertsonak aktibatuz eta entitateen urratsak probokatuz.

Entitateei dagokienez, hizkuntza praktikak zailtzen dituzten baldintzak pairatzen badituzte edo babes neurririk ez badute, 2018an bertan, **Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimenaren baitan, egoera hori aldatzeko urrats berriak eman ditzaten gonbidatuko ditugu, eta baita beren eremuko kideak *ahobizi* eta *belarriprest* izan daitezen sustatzera ere.

**Helburua:** euskaltzale helduak aktibatzea eta prestatzea beren egunerokoan euskaraz aritu daitezen.

**Non:** Euskal Herri osoan.

**Noiz:** 2 fase izango ditu:

1. Herritarren prestaketa fasea: 2018ko udaberritik udazkenera bitartean.
2. Exekuzio fasea: 2018-11-23 / 2018-12-3 (11 egun)

**Nori zuzendua:** 16 urtetik gorako herritarrei.

**Nola:**

1. Herrietako euskaltzale ezberdinak koordinatu eta 365 batzordeak sortuz.
2. Herritarrak *ahobizi* eta *belarriprest* bihurtuz.

### **A. Xede taldeak**

Gutxienez **euskaraz ulertzen duten 16 urtetik gorako herritarrak** dira ekimenaren xede taldea. Beren gaitasun eta ulermenaren arabera, *ahobizi* zein *belarriprest* izango dira. Parte hartzaile bakoitzak erabakiko du zein rol hartuko duen (beti ere baldintzak betetzen baditu).

Ekimen orokorrari dagokionez, aipatutako profilaren barruan bada interes berezia sortzen duen talde bat: **euskara jakin bai baina egunerokoan erabiltzen ez duten gazteak**.

Gainera, parte hartzaile izan ez arren, **euskaraz ez dakiten euskaltzaleak** inplikatzeko proposatzen dugu sentsibilizazio eta prestakuntza saioak eskainita. Norbere jokaera zein ingurukoena aldatzen laguntzeko tresnak eskaini dakizkieke.

Azkenik, **haurrak**, ekimenean parte hartzaile izan gabe, helduak aktibatzekeo sustatzaile izatea bilatuko dugu.

### **B. Sustatzaileak**

Euskaraldiko sustatzaileak, ekimena bultzatzea erabaki duten entitateak dira. Ekimenak hiru sustatzaile mota elkartzen ditu:

- Erakunde publikoak eta beren euskara sailak.
- Euskalgintzako gizarte eragileak.

- Euskararekiko ardura duten bestelako entitateak: enpresak, kirol taldeak, kultur elkarteak, guraso elkarteak eta abar.

Sustatzaileak herriz-herriko ekimenetan zein egitasmo orokorrean aurki daitezke, eta beharrezko ikusten dugu herriz herriko euskaingintzak saretuta ekitea proiektuari, elkarlanean.

Ondorengoak dira sustatzaileek funtzioak:

- Ekimenaren zabalkundea egitea beren eremuan, langile, bazkide eta bezeroekin, zein nazio edo herri mailan.
- Beren eremuko kideak aktibatzea ahobizi eta belarriprest izan daitezen (pertsona erreferentzialak eta gainontzeko herritarrak).
- Hizkuntza praktika horiek posible izan daitezen, babes neurri berriak hartzea.

\* Aurreko lanak egiteko beharrezko baliabideak jartzea (komunikazio tresnak, aurkezpenak, kideen prestakuntzarako bideak, baliabide ekonomikoak...). Azken hau, entitatearen izaeraren, beharren eta aukeren arabera definitu behar da.

Ekimen orokorrari dagokionez, sustatzaile taldean hainbat azpitalde eratu dira, elkarlanean aritzeko. Lau talde daude eratuta otsailean: prestakuntza batzordea, ume eta nerabeen batzordea, lan munduko batzordea eta erakunde publikoen batzordea.

Otsailaren bukaeran, ondorengoak dira ekimen orokorreko sustatzaileak, orden alfabetikoan

- |                                  |   |
|----------------------------------|---|
| 1. AEK                           | 18. Eusko Jaurlaritza - HPS               |
| 2. Arabako Foru Aldundia         | 19. Gipuzkoako Foru Aldundia              |
| 3. Argia                         | 20. Herri Elkargoa                        |
| 4. Artez Euskara Zerbitzua       | 21. Hizkuntz Eskubideen Behatokia         |
| 5. Bai Euskarari Elkarte         | 22. IKA                                   |
| 6. Berria taldea                 | 23. Ikastolen Elkarte                     |
| 7. Bizkaiko Foru Aldundia        | 24. Irrien Lagunak                        |
| 8. EHU                           | 25. Kontseilua                            |
| 9. Elhuyar                       | 26. Nafarroako Gobernua -<br>Euskarabidea |
| 10. Elkar Fundazioa              | 27. Sortzen                               |
| 11. Emun                         | 28. Soziolinguistika Klusterra            |
| 12. Eudel                        | 29. Tokikom                               |
| 13. Euskal Konfederazioa         | 30. Uema                                  |
| 14. Euskaltzaindia               | 31. UEU                                   |
| 15. Euskaltzaleen Topagunea      | 32. Urtxintxa Gipuzko                     |
| 16. Euskararen Erakunde Publikoa |   |
| 17. Eusko Ikaskuntza             |   |

#### **D. Koordinatzaileak**

*Euskarak 365 egun* dinamikaren koordinatzaileak **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Euskarabidea eta Euskaltzaleen Topagunea** gara. Ipar Euskal Herriko ordezkariak publikoak koordinazioan sartzeko ahaleginean ari gara.

Batzordearen koordinazioa eta **ekimenaren kudeaketa Euskaltzaleen Topaguneko kideak ari gara lantzen**, mahaiko gainontzeko eragileekin koordinatuta. Ekimenaren zabalkundea, aldiz, hiru erakundeak ari gara egiten.

#### **NOLA EGIN NAHI DUGU Euskaraldia: 11 egun euskaraz?**

Herriz-herri (edo eskualdez eskualde) eta maila orokorrean gauzatuko den ekimena bideratzeko, bi plano horietan ari gara lanean.

Herriei dagokienez, **tokian tokiko sustatzaile batzordea** osatzea proposatzen dugu, euskalgintzako kideek (publikoak zein sozialak) zein bestelako eragileek osatuko dutena. Hona hemen zenbait proposamen herritarrak aktibatu eta prestatzeko eta ekimena gauzatzeko:

- **Dinamika orokorra tokian tokiko errealitatera egokitzea.** Koordinatzaileok proposatzen dugun ekimena herriko kronogramara, eragileetara eta xede-taldeetara egokitu behar da, tokiko beharrei erantzuteko.
- **Tokiko euskalgintzako eragileen arteko elkarlanetik gauzatzea.** Ekimena bultzatzeko tokiko euskaltzaleen taldea osatu behar da, eta bertan egotea komeni da udaleko euskara zerbitzua (teknikaria eta arduradun politikoa), euskaltzaleen elkarte edo euskararen erabilera sustatzea helburu duen gizarte-eragilea, ikastetxeak, euskaltegiak eta abar. Euskararekiko ardura duten bestelako entitateak ere izan daitezke sustatzaile. Talde hori koordinatu eta lanak egiteko, gainera, pertsona bat liberatzea komeni da.
- **Parte hartzaileak prestatzea.** Hamaika egun horietan eta ostean hizkuntza praktikak alda ditzaten, *ahobizi* zein *belarriprest* izateko deia egin, sentsibilizazio lana egin, prestakuntza eskaini, ahaldundu eta baliabideak eman behar zaizkie herritarrei. Era berean, erdaldun euskaltzaleentzako prestakuntza eskaintzea baliagarria da (parte hartzaile izan ez arren).
- **Prestaketarako eta bidea egiteko denbora hartzea.** Aurretik aipatutako lanak gauzatzeko eta ekimenean jende berria inplikatzeko denbora behar da; hamaika egun horiek bezain garrantzitsua da prozesua.
- **Ekimena gauzatu ahal izateko baliabideak izatea.** Proposamen hau garatu nahi duen entitate edo herri bakoitzak proiektu bat prestatu beharko du. Baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta herri mailako komunikaziorako baliabideak hartu behar dira kontuan.

## KRONOGRAMA

Tokiko ekimena eta nazio mailakoa koordinatuta egoteko, beharrezkoa da oinarritzko kronograma bateratua izatea. Hona hemen kronograma laburra (beltzez ageri direnak maila orokorreko lanak dira):

- **2017ko azaroaren 23tik aurrera, ekimen orokorraren gizarteratzea.**
- 2018ko lehen hiruhilekoan, herriko batzordea osatu.
- **2018ko apirilaren 8an, herri edo eskualdeen izen ematea itxi.**
- 2018ko udaberrian, ekimena herrira egokitu, herrian aurkeztu eta eragile berriak bildu, batzordekideak prestatu eta udazkeneko lanak bideratu.
- **2018ko irailean, herritarren izen ematea abiatu.**
- 2018ko iraila-azaroa bitartean, herritarren izen ematea zabaltu eta herritarrak prestatu (prestakuntzaren eta komunikazio tresnen bidez).
- 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, ekimena gauzatu.
- 2018ko abenduaren 4tik aurrera, dinamika berriari eutsi!

## IZEN EMATEA

### 1. Herrien eta entitateen izen ematea. 2018ko lehen hiruhilekoan.

Herrien kasuan, udalak, euskalgintzako gizarte-eragileek eta bestelako eragileek (enpresak, kultur taldeak eta abar) proiektuan parte hartzea erabaki eta batzordea osatzea da izena eman aurreko urratsa. Talde motorreko sustatzaileek, bakoitzak bere aldetik, beharrezkoa den kasuetan hizkuntza praktikak errazteko babes neurri berriak hartuko dituzte, eta beren inguruko kideak parte hartzera animatuko dituzte.

Entitateen kasuan (enpresak, elkarteak, ikastetxeak, unibertsitatea eta abar), izena emateko bi arrazoi egon litezke: kokatuta dauden herriak ez duela herri gisa parte hartuko, edo ez daudela eremu geografiko bakarrari lotuta. Kideen hizkuntza praktikak errazteko babes neurri berriak hartzea beharrezkoa izango da.

### 2. Pertsonen izen ematea. 2018ko irailetik azarora bitartean.

**Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimenean parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak ekimenaren webgunean, herrian edo entitate batean, behin bakarrik, eman beharko du izena. Hala ere, **parte hartzea ez da izena ematen den eremura mugatuko**, eta, esaterako, unibertsitatean izena emanez gero, kidea herrian ere izango da *ahobizi* edo *belarriprest*. Ondorioz, behin izena leku batean emanda, herritarrak ekimenean egun osoz hartuko du parte, lanean, etxean zein kalean egon.

#### Izen emateko baldintzak:

- 16 urte edo gehiago izatea.
- *Belarriprest* izateko, euskara ulertu behar da ezinbestean.
- *Ahobizi* izateko, euskaraz hitz egiteko gaitasuna behar da.



## BALIABIDEAK ETA FUNTZIO BANAKETA

Lehenago aipatu bezala, bi planotan gauzatuko da **Euskaraldia: 11 egun euskaraz** ekimena, eta eragile bakoitzaren funtzioak plano horien arabera definituko dira.

### Koordinazio orokorrak landuko dituen baliabideak

**Erakunde koordinatzaileek ondoren zehazten diren baliabideak** prestatu eta proiektuan parte hartu nahi duten herri eta entitateen eskura jarriko dituzte.

- **Baliabide linguistikoak.** Herrietako sustatzaile batzordeetako kideentzako eta parte hartzaile guztientzako prestakuntza saioak, moodle plataforma eta tresnak (bideo laburrak eta bestelakoak).
- **Komunikazio baliabideak.** Herrietarako komunikazio plan eredia eta komunikazio tresna orokorrak (marka, euskarri orokorrak, webgunea, spotak...)
- **Bestelako baliabideak.** Herrietan talde motorrak sortzeko aktibazio saioak eta hitzaldiak, sustatzaileentzako moodle plataforma, izen ematerako datu basea, kudeaketarako baliabideak, txapen ekoizpen zentralizatua eta abar.

### Herriek kudeatzeko baliabideak eta ekimenen beharrak

Koordinazio orokorrak egokitu eta eskainiko dituen baliabideez gain, beharrezkoa da herriek zenbait funtzio eta baliabide beren gain hartzea. Ondorengoak dira gutxienekoak:

- **Tokiko dinamizazioa.** Herriko sustatzaile sarea aktibatzeke lana eta ekimena gauzatzeko herriko koordinazioa.
- **Prestakuntza saioak.** Gutxienez, *ahobizi* eta *belarriprestentzako* prestakuntza saioak antolatzeko baliabideak bideratzea (prestatzaileen gastuak, espazioa eta bestelako beharrak).
- **Tokiko komunikazioa.** Komunikazio euskarri orokorrak herrira egokitzea, inprimatzea eta bestelako komunikazio lanak egitea.
- **Materiala: txapak.** Herriko parte hartzaileentzako txapen produkzioaren kostua eta herriko banaketa lana.
- **Ekintza / ekitaldi bereziak.** Herrian lehenesten diren ekitaldi, hitzaldi eta bestelakoak.

## KOMUNIKAZIOA

Proiektua gizarteratzeko ezinbesteko tresna da komunikazioa, horri esker lortuko baitugu egitasmoaren inguruko informazioa modu eraginkorrean azaltzea. Ekimena Euskal Herri osoan eta aldi berean gauzatzeko, irudi eta marka konpartituak erabiltzea proposatzen dugu.

Hala, komunikazio estrategia herri guztietan eraginkortasunez martxan jarri ahal izateko komunikazio gida sortu dugu. Herri guztietako batzordeek izango dute eskura. Gidak mezuak zabaltzeko, informazioa emateko eta euskarriak erabiltzeko jarraibideak eskainiko ditu.

## KONTAKTUA

Dokumentu hau jatorrizkoaren laburpena da, 2018an eguneratua, eta euskalgintzan lanean ari diren kide eta entitateen esku jarri da. Informazio zehatzagoa behar izanez gero, jatorrizko dokumentua irakur daiteke. Era berean, intranet atarian arloz arloko dokumentuak aurki daitezke.

**Euskaraldia: 11 egun euskaraz** dinamikako lantaldea eta harremanetan jartzeko bideak ondorengoak dira:

<p><b>Koordinazioa</b> Arrate Illaro: <a href="mailto:arrate@topagunea.eus">arrate@topagunea.eus</a> / 673.428.464</p>
<p><b>Komunikazioa</b> Leire Palacios: <a href="mailto:lpalacios@topagunea.eus">lpalacios@topagunea.eus</a> / 688.647.933</p>
<p><b>Sustapena: Araba eta Bizkaia</b> Manuel Moreno: <a href="mailto:manuel@topagunea.eus">manuel@topagunea.eus</a> / 656.794.697 Ziortza Basaguren: <a href="mailto:ziortza@topagunea.eus">ziortza@topagunea.eus</a> / 688.74.21.01</p>
<p><b>Sustapena: Gipuzkoa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa</b> Jurdana Martin: <a href="mailto:jurdana@topagunea.eus">jurdana@topagunea.eus</a> / 656.702.651 Rita Aldabaldetrek: <a href="mailto:rita@topagunea.eus">rita@topagunea.eus</a> / 688 648 352</p>
<p><b>Sustapena: Nafarroa</b> Oskar Zapata: <a href="mailto:oskar@topagunea.eus">oskar@topagunea.eus</a> / 618.615.277 Larraitz Amadoz: <a href="mailto:lamadoz@topagunea.eus">lamadoz@topagunea.eus</a> / 674.34.57.49</p>
<p><b>Informazio orokorra</b> <a href="mailto:365@topagunea.eus">365@topagunea.eus</a> / 943.59.11.86 / 94.681.48.21 (Euskaltzaleen Topagunea) <a href="mailto:euskara-sustapen@euskadi.eus">euskara-sustapen@euskadi.eus</a> / 945.01.81.14 (HPS) <a href="mailto:sustapena@nafarroa.eus">sustapena@nafarroa.eus</a> (Euskarabidea)</p>

Euskaltzaleen Topagunea  
Euskarabidea, Euskararen Nafar Institutua  
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza